

# ERESI ESNAGARRI

*Norbert Tauer'i, bere euskel-tzaletasunagaitik, eskerkiz.*

*OTSALAR'ek.*

Smetana aundia, zer dakardika gau ontan ?  
Moldavia'k daraman doñu berezi otsa,  
ain sakonki astintzeko gaur nire biotza.  
Zer arkitzen diat ire eresi entzungarri ortan ?

Bohemia'ko bioliñen doñua negarti,  
errekaren eten gabeko marmarioak apaindua  
Checo-erri zintzoaren gogo eta naia,  
agirian duelarik bere tolezkaitasun arrigarri.

Leiarrezko ereskioak zorrozki zulatuz,  
nire erraietaraño miñaren miñez sakonduz ;  
gau onen beltzean, beste gau bat sortuz.

Smetana'k edan zun ur garden ori  
Eslava'ko ibai korronteruntz da izuri.  
Moldavia ! I aiz, i, erri jarraigarri baten iturri.